

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzari aparteko laguntzak emateko udal programako deialdiaren aurrekontu-zuzkidura handitzeko erabakia

2020eko abenduaren 30ean egindako aparteko eta premiazko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzari aparteko laguntzak emateko udal programako deialdiaren aurrekontu-zuzkidura handitzeko erabaki-proposamena, zeinek honela baitio:

“I. 2019eko abenduaren 9ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen 2020ko deialdiak arautzeko oinarri orokorrak.

II. 2020ko azaroaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzari aparteko laguntzak emateko udal programaren berriazko oinarriak eta deialdi publikoa (2020ko abenduaren 9ko ALHAO, 140. zk.), 500.000,00 euroko zuzkidura ekonomikoarekin, indarrean dagoen aurrekontuko 2020/0823.4331.489.00 partidaren kontura.

III. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko abenduaren 18ko ebazpen baten bitartez, deialdi horren barruan abenduaren 10era bitartean aurkeztutako eskabideak ebatzi ziren, eta dirulaguntzak eman, harik eta deialdiaren 4. oinarrian jasotako aurrekontu-zuzkiduran 200,00 euro soberan geratu arte.

IV. Zuzkidura hori ia osorik agortua zenez gero, eta dirulaguntza jaso zezakeen beste eskabiderik epe barruan jaso zela egiaztatu zelarik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Merkataritza Zerbitzuko buruaren 2020ko abenduaren 22ko txostena zela medio, deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 50.287,74 euroan handitzea proposatu zen.

Egiaztatu da badela nahikoa kreditu egokirik 2020ko udal aurrekontuko 2020/0823.4331.489.00 partidan.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horietako baldintzak onesteko —eta behar izanez gero aldatzeko— eskumena, beraren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehena. 2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzari aparteko laguntzak emateko udal programako deialdiaren aurrekontu-zuzkidura berrogeita hamar mila berrehun eta laurogeita zazpi euro eta hirurogeita hamalau zentimo (50.287,74 euro) handitu dadila erabakitzea.

Bigarrena. 50.287,74 euroko gastua jasota uztea 2020ko aurrekontuko 2020/0823.4331.489.00 partidaren kontura.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta Udalaren webgunean argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 7an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria*
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ